ALTSASU

LA DRAMÁTICA ERRANTE

DRAMATURGIA ETA ZUZENDARITZA: MARÍA GOIRICELAYA

LA DRAMÁTICA ERRANTE
SAREA EUSKADIKO ANTZOKI SAREA RED VASCA DE TEATROS
ntf NUEVO TEATRO FRONTERIZO
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
OTXOA DE BARANDIKA FUNDAZIOA
portalan
Sopela
ARRIOLA

ALTSASU

ALTSASUKO AUZIAN OINARRITUTAKO FIKZIOA.

LA DRAMÁTICA ERRANTE

SINOPSIA

2016ko urriaren 15eko gauean istilu bat gertatu zen Altsasuko (Nafarroa) Koxka taberna parean, herriko hainbat bizilagun eta bi Guardia Zibil agente eta hauen bikotekideen artean. Emaitza, bi atxilotu eta hautsitako orkatila bat; tenientearena. Altsasu telebista plato bat bihurtu zen eta, kasua Estatu arazo bat. Aferak beste norabide bat hartu zuen Euskadiko Terrorismoaren Biktimen Kolektiboak gertakariak Audientzia Nazionalaren aurrean salatu zituenean, nahiz eta ikerketak ordurako Nafarroako epaitegietan bere ibilbidea izan. Erakunde honek terrorismo salaketa egin zuen, eta azaroaren 14an polizia operazio bat jarri zuten martxan zortzi gazteren aurka. Ahozko bista 2018ko apirilaren 16an hasi zen eta fiskalak 62 eta 12 urte bitarteko kartzela zigorrak eskatu zituen. Epaiketak ikusmin handia piztu zuen askatasunen murrizketa, "terrorista" adieraren neurrigabekeria, eta epaiketa justu bat izateko eskubidearen urraketa mahai gainean jarri baitziren.

"Altsasuko kasura hurbilketa zorrotza eta zintzoa den arren, fikziozko obra baten aurrean gaude, eta, beraz, genero dramatikora egokitzeko lana behar izan du. Hala ere, epaiketako lekukotza batzuen transkripzioak, prentsa-ebakinak, komunikabideak eta sare sozialetako edukiak erabili izan dira."

ZERGATIK IKUSKIZUN HAU?

Ikuskizun hau, Altsasu, ”CICATRIZAR” proiektuaren baitan sortzen da. José Sanchís Sinisterra eta Carlos José Reyes antzerkigile eta zuzendariek zuzendutako nazioarteko sorkuntza dramaturgikoaren proiektu bat, el Nuevo Teatro Fronterizo-ren bitartez, Espainiako estatuko dramaturgia laborategi garrantzitsuenetako batean. Proiektu honen abiapuntuael Nuevo Teatro Fronterizo-k garatzen duen ikerketa-ildo nagusietako bat da, iragan hurbilari buruzko ezagutza eta gogoeta sustatzeko helburuarekin, memoriarako eskubidearen babes-balioak eta historiaren erabilera publikoa sustatuz sorkuntza dramaturgiko garaikidearen bidez.

La Dramática Errantetik uste dugu Altsasuko auzia berrikustea eta eszenaratzea merezi duten hainbat gai jorratzeko. Horien artean, justiziak inoiz izan beharko ez lukeenaren adibide garbia da, orbaintzea ahalbidetu ordez, esparru demokratiko baten barruan pentsaezinak diren gehiegikeria judizialen bidez zauria berriro irekitzen duen neurriz kanpoko kasu baten adibide izanda. Horrela, proposamenak helburu hauek ditu:

- Zauriak kentzen eta orbainak argitzen laguntzea.
- Arazoaren alderdi etikoak, juridikoak, filosofikoak eta psikologikoak azpimarratzea.
- Bakea lortzeko borrokatu, barkamena, ahanztura eta errepikapenik eza planteatuz. Gogoratuz bakea ez dela soilik indarkeriarik eta beldurrik eza, baizik eta egia, justizia eta erreparazioa lortzea.
- Minaren orbaintze kolektiboa bilatzea; gizarte-hausturarik gabeko bizikidetzan.

Garapen dramaturgikoari dagokionez, proposamen honek Altsasuko inauterietako pertsonaiarik esanguratsuenetako bat den Momotxorroaren irudia hartzen du abiapuntutzat, azken urteetako kasu judizial polemikoenetako batean barneratzeko. Historikoki herri honi eta inauterietako gau horri lotutako izaki honen bidez, historiak Altsasuko auziaren gertakariak xehatzen ditu, justizia erdigunean jarriz, bere esanahiaz eta bere funtzionamenduaz galdetzeko, parametro judizialen barruan.

KONPAINIA

Ane Pikazak eta María Goiricelayak 2017an sortutako zigilu artistikoa da **LA DRAMÁTICA ERRANTE**. Kabia Teatroko kide egonkorrak dira 2007tik non aktore eta ikertzaile gisa lanean egon diren. Duela hiru urtetik hona, bere piezen sorkuntza integralaren aldeko apustua egin dute, istorioak kontatzeko modu propioa finkatzeko, betiere alderdi sozialetan oinarrituta eta antzerkia hausnarketa eta hobekuntza soziala sortzeko gai den tresna moduan ulertuz.
Konpainiak bere testuak sortzearen aldeko apustua egin du, euskal antzerkigintzan dramaturgia berriak sortzen laguntzeko, bere piezen sorkuntzan ikerketa-lana egiteko eta antzerkian sakonduko duten poetika berriak bilatzeko. Horrela, urte hauetan honako pieza hauek sortu dituzte: «Maitasuna eta argia/ Maitasunez eta argiz» (BAS Bilbao 2017 Jaialdia), «Lyceum Club» (Gau Zuria Bilbao 2017), «Uccelli» (Musika Jaialdia 2018), «7 Minutu» (Gau Zuria 2019 eta 2020). Era berean, hainbat ikuskizunen zuzendaritza eta diseinu artistikoa sinatu dute, besteak beste, honako hauek: «Ocaña» (Arriaga Antzokiak eta Pabellón 6k 2018an ekoitzia) eta «Harri Orri Ar/El Patio de mi casa» (Gasteizko Antzoki Zaharrak, Arriaga Antzokiak, Victoria Eugeniak eta Pez Limbo konpainiak ekoitzia, Antzerkigintza Berriak programaren barruan testua hautatu ondoren). Era berean, pieza laburrak sinatzen dituzte: «Ponme tu historia aquí» (2018) eta «Que siempre estemos todos y un cocodrilo en el techo» (2019).

Aldi labur baina bizi honetan, hainbat errekonozimendu izan dituzte:

- Kultura Harrotasunez Jaialdiko Ikuskizun Onenaren NAZARIO Saria (2019).
- Bi hautagai 2019ko MAX Sarietarako: ikuskizun Errebelazio Onenaren eta Egile Errebelazio Onenaren Sarietarako («Lyceum Club»).
- Euskal Ekoizpen Onenaren ERCILLA Sarietarako izendapen bat, «Ocaña» lanagatik.
- Publikoaren saria 2018ko Antzerki Laburreko Jardunaldietan, “Ponme tu historia aquí” lanagatik.

LA DRAMÁTICA ERRANTE

TALDE ARTISTIKOA

Dramaturgia eta zuzendaritza:
María Goiricelaya
Itzulpena:
Kepa Errasti
Zuzendari Laguntzailea:
Eider Zaballa

Aktoreak:
Nagore González
Egoitz Sánchez
Aitor Borobia
Ane Pikaza

Eszenografía:
Eider ibarrondo e Isabel Acosta
Jantzitegiak:
Betitxe Saitua
Argiztapen Diseinua:
David Alkorta
Musika:
Adrián García de los Ojos
Soinugintza:
Ibon Aguirre
Ekoizpena:
La Dramática Errante
Banaketa:
Portal 71



la dramática errante
ladramamaticaerrante@gmail.com

BANAKETA // PORTAL 71
rociopindado@portal71.com